Gazte ugari biltzen dira Gasteizko txosnetan.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

GASTEIZ

GORKA ARBULU, GASTEIZKO TXOSNEN BATZORDEA

«Jaiak kolore grisekoak dira: ikuskizun pasiboak bultzatu eta formulak errepikatzen ditu Udalak; pizgarriren bat behar dute»

Gasteizko Txosnen Batzordea eta Nesken eta Blusen Komisioa, biak ari dira parte hartzen Jai Herrikoiak Bultzatuz ekimenean.

«Bai Txosnen Batzordeak bai Nesken eta Blusen Komisioak hainbat arazo, traba eta oztopo pairatu ditugu. Hori bai, segur aski iazko jaietan koadrila bati gertatutakoa da deigarriena: pankarta kendu eta Audientzia Nazionalera bidali zuten», argitu du beste ezeren aurretik Gorka Arbuluk.

Gasteizko festei kolore bat jartzekotan grisa aukeratuko luke. «Udalak ikuskizun pasiboak bultzatzen ditu, gainera, etengabe formula berdinak errepikatuz. Eta bestelako esperientziatan ari garenok ez dugu laguntzarik; alderantziz, askotan oztopoak jartzen dizkigute. Blusa eta neskei dagokienez, teorian festaren arima dira; aldiz, Udalarentzat erakusleiho hutsa dira, ez da euren parte hartzea zuzenagoa izatea sustatzen. Txosnen kasuan gunea badugu, baina erdigunetik urrun, unibertsitateetan», kontatu du.

Egoera ikusita, jaiek pizgarriren bat behar dutela uste du: «Gu ari gara modua bilatzen, baina erakundeek ez dute gustuko erabateko kontrola galtzea. Iaz, urrian, jai batzorde herrikoi bat osatzeko eskatu genuen; erakundeak, txosnak, blusak, ostalaritzako ordezkariak... guztiek parte hartzea nahi genuen. Aldiz, ez zuten onartu. Ondo moldatzen direla eta ganorazko proposamenak egiten baditugu aztertuko dituztela esan digute».

Udal agintarien ustez, festen diseinua euren kontua da, herriak aukeratu dituelako. «Guk esan izan dugu lau urtez udaletxean dauden apopiloak baino ez direla», argitu du. Horrez gain, diru laguntzak eskuratzeko garaian burokrazia gero eta handiagoa da. Eta laguntza, eskasa: «Egun bakar batean Udalak Foru plazan gastatzen duen diru kopuru berdina jasotzen du Txosnen Batzordeak jai guztietarako», salatu du Gorka Arbuluk.

Bada besterik. «Ez gaude Udalaren menpe bakarrik, baita Eusko Jaurlaritzaren pean ere. Iaz, adibidez, Ertzaintza Tele 5 telebista kateko kamera eta kazetariekin agertu zen goiz batean txosnen eremura; noiz eta txosnak ixten ari zirenean eta inork ezer egiterik ez zuenean. Zirko bat iruditu zitzaigun hura: pankartak batere irizpiderik gabe kendu zituzten kameren aurrean... Gustu txarrekoa izan zen».

Antzeko egoera bizi izan zen Judimendiko San Juan jaietan ere. «Udal garbitzaileak Poliziak eskoltatuta ibili ziren goizero. Zer jartzen zuen begiratu ere egin gabe kentzen zituzten pankarta eta kartel guztiak», esan du.

Erdigunetik urrun egoteak gauzak zaildu egiten dizkie txosnei. «Ez digute aukerarik eman gure jai eredua benetan indartsua dela erakusteko. Hala ere, eskura dauzkagun tresnak kontuan izanda, arrakastatsua da gunea, ezin du arrakasta gehiago izan. Baina, noski, ez da inondik inora guk nahiko genukeena», azaldu du.

Zailtasunen eta erasoen aurrean, lanean jarraitzea da Gasteizko txosnen erantzuna: «Guk ez dugu gerrarik nahi, ez du zentzurik. Enfrentamendurik ematen bada, ez da gure borondateagatik. Guk lan gehiago eginez erantzun diegu: umeei zuzendutako programazioa landuz, goizetan ekitaldiak antolatuz...».

Gasteizen 1980. urteko abuztuan jarri ziren txosnak lehen aldiz. Aurten 30. urteurrena ospatuko dute. Gaur egun hamabi kolektibo biltzen dira batzordean. «Ia erakunde bakarra gara, adostasunean antolatzen dugu dena», dio Arbuluk.

Txosnek erronka hirukoitza dute. «Batetik, bakoitzaren aldarrikapenak festen espaziora eramatea. Bestetik, txosnetan lan txandak-eta kudeatzea, lan asko egin beharra baitago. Azkenik, batzordeak berak dakarren lanari aurre egitea. Ahalegin handia da eta gutxien-gutxienez azpiegiturak jartzea eskatzen dugu; ez dut uste gehiegi denik. Aldiz, ura, argia eta erabilitako lur-eremuaren alokairua ere gure poltsikotik ordaintzen ditugu», salatu du.